



**ESPARRU-AKORDIOA, BIZKAIKO LURRALDE HISTORIKOKO LEHEN  
HEZKUNTZAKO 6. MAILAKO IKASLEENTZAT INGELESEKO  
HIZKUNTZAN MURGILTZEKO EGONALDIAK ARAUTZEKO**

Vitoria-Gasteizen, 2009ko azaroaren 9an.

**BILDU DIRA:**

**Maria Soledad Esteban Galarza, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Administrazio eta Zerbitzuen sailburuordea, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ordezkari gisa eta**

**Juan Manuel Elizalde Sánchez, Kells Collage S.L. enpresaren izenean eta hura ordezkatzuz, enpresa horretako administratzaile bakar eta zuzendari nagusi den aldetik (hala dela egiaztatzen du bere alde, Burgosko notario Jesús María Ferreiro Cortines jaunaren aurrean, 665 protokolo-zenbakiarekin, 2006ko otsailaren 27an egindako eskriturak)**

**ADIERAZI DUTE**

I.- 2009ko ekainaren 26ko Aginduak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa sailburuarenak, xedatutakoari jarraikiz, homologagarritzat jotzen dela Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxe publikoetako unibertsitatez kanpoko ikasleek eskola-ingurunetik kanpo egindako atzerriko hizkuntzak ikasteko jardueren gaineko alderdi guztien antolaketa.

Aipatutako aginduaren artikuluetan:

- Ekainaren 5eko 136/1996 Dekretuaren ondorioetarako, zerbitzu homologagarritzat jotzen da ingelesean murgiltzeko ikastaro hauen antolaketa: 2009/2010 ikasturtean Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren mendeko ikastetxe publikoetako unibertsitatez kanpoko ikasleek egingo dituztenak (1. artikulua).
- Zerbitzu horien estandarizazioa onartzen da, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak prestatutako Oinarri Teknikoen Pleguen arabera. (1. artikulua).
- Administrazio eta Zerbitzuetako sailburuordeari eskuordetuko zaio aipatutako ondasunak eta zerbitzuak homologatzeko eskumena, lehiaketa izapidetu eta ebatz dezan (3. artikulua).

II.- 2009ko abuztuaren 19an, Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu zen lizitazio-iragarkia, òLehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat, 2009/2010 ikasturtean ingeleseko hizkuntzan murgiltzeko jardunaldiak antolatzeko eta aurrera eramateko zerbitzuak homologatzea helburu duen esparru-akordioa egiteko lizitazioa jakinarazteko zenaö. Honako lote hauetan dago zatituta:

1. lotea: Arabako Lurralde Historikoko Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat ingeleseko hizkuntzan murgiltzeko jardunaldiak antolatu eta egitea.
2. lotea: Gipuzkoako lurralde historikoko Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat ingeleseko hizkuntzan murgiltzeko jardunaldiak antolatu eta egitea.
3. lotea: Bizkaiko Lurralde Historikoko Lehen Hezkuntzako 6. mailako ikasleentzat ingeleseko hizkuntzan murgiltzeko jardunaldiak antolatu eta egitea.

2009ko urriaren 16ko Ebazpenaren bitartez, erabaki zen esparru-akordioko 3.lotea esleitzea KELLS COLLEGE, S.L. enpresari, prezioa, guztira, 291.600 eurokoa da. Egonaldi bakoitzaren prezioa 16.200 eurokoa da. Erabaki hori kontratatzaile-profilean argitaratu zen, aipatutako egunean bertan.

Legez eskatutako dokumentuak aurkeztuta, behin-behineko esleipena behin betiko egin zen 2009ko azaroaren 4an, eta Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian eta kontratatzaile-profilean argitaratu zen, 2009ko azaroaren 5ean.

Esleipen-erabakiaren ondorioz, KELLS College S.L. izan da esleipendun. Enpresa horrek emango ditu beharrezko elementu pertsonal eta material guztiak, bai aipatutako programa egiteko, bai atzerriko hizkuntzak ikasteko egonaldietan egingo diren jardueren osagarriak eta antzeko zerbitzuak emateko. Egonaldiak eskola-ingurunetik kanpo egingo dira, eta astebeteko iraupena izango dute (astelehenetik ostiralera, bost egun eta lau gau).

III.- Kells College S.L. enpresak behin betiko bermea eratu duela Ogasun eta Finantza Sailburutzaren aurrean. Bermearen zenbatekoa 14.580 euro da, F200901149 zenbakia du eta 2009ko azaroaren 3an eratu zen.

IV.- Azaldutako guztiarekin bat, dokumentu hau egin dutela eta dokumentuaren hiru ale eman dituztela. Horren ondorio da zerbitzuak ematea arautzen duen esparru-akordioa, aipatutako arauan eta plegu orokorretan eta oinarri teknikoen pleguan xedatutakoaren arabera egiletsia. Esparru-akordio hori egingo da honako xedapen hauei jarraikiz:

## XEDAPENAK

**Lehenengoa: Esparru-akordioaren izaera aldaezina.**

Esparru-akordio honetan adierazitako baldintza ekonomikoak ezingo dira aldatu esparru-akordioa indarrean den bitartean.

Gainerako baldintzak aldatzeko (bereziki, giza baliabideak ordeztzeko), alde zuzenetik baimena eman behar du Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak. Edonola ere, ordeztutua izango den pertsonaren lanbide-profilaren zehaztapenak bete behar dira.

**Bigarrena: Aplikazio-eremua.**

Esparru-akordio hau Bizkaiko lurralde historikoan aplikatuko da, eta 1.080 ikasle eta 108 irakasle-laguntzaile izango ditu hartzaile, gehienez ere.

Egonaldiak 18 txandetan egingo dira, eta txanda bakoitzean ikastetxe bateko edo zenbaitetako 60 ikasle eta 6 irakasle parte hartuko dute, gehienez ere.

**Hirugarrena: Prezioak eta kontratazioa.**

Esparru-akordio honi egotz dakioken gehieneko prezioa, guztira, 219.600 eurokoa da. Egonaldi bakoitzaren prezioa 16.200 eurokoa da (egonaldia: astelehenetik ostiralera).

Ekainaren 26ko Aginduak, homologazioari buruzkoak, bere 4. artikuluan xedatutakoaren arabera, hautatutako ikastetxeek kontratua egingo dute Kells College enpresarekin. Kontratu horretan jasoko dira honako hauek: parte hartuko duten ikasleen eta irakasleen kopurua; eta kontratatutako kostua. I. ERANSKINean jasotako ereduaren arabera formalizatuko da.



Kontratuan titular gisa ageri den ikastetxeak egingo du ordainketa, aldez aurretik fakturak aurkeztu eta gero, bi epetan: lehenengo ordainketa kontratua izenpetu ondoren egingo da, eta kontratatutako guztiaren %40 ordainduko da; eta, bigarrena, gainerako diru-zenbatekoari dagokiona, ingeleseko hizkuntzan murgiltzeko astea amaitu ondoren.

### Laugarrena: Egonaldi-txandak

Egonaldiak 2009ko azarotik 2010eko maiatzaren izango dira eta Hezkuntza Berriztatze Zuzendaritzak Lehen Hezkuntza Ikastolentzako txanda zehatz-mehatz erabakiko du.

Egonaldia hasiko den egunean (astelehena), autobusak jarriko dira, eta Kells enpresako langileak joango dira autobusetan. Ikasle parte-hartzaileak hartuko dituzte matrikulatuta dauden ikastetxean, eta (Berriz) Olakueta aterpetxera eramango dituzte. Orduan hasiko da murgilketa.

Ostiralean, ikasle bakoitza bere ikastetxera eramango da, eta hori izango da egonaldiko azken ekintza. Saiatuko da ikasleak ikastetxeko arratsaldeko ohiko eskolak bukatzen diren ordurako eramaten. Ikastetxeetako irakasle-laguntzaileek izango dute ardura ikasleak ikastetxera eramateko. Kells College enpresako langileak aterpetxean geratuko dira, materiala jaso eta prestatzen, hurrengo astelehenean joango den taldearen egonaldirako.

Ikastetxe parte-hartzaile bakoitzarekin zehaztuko dira egonaldira joateko eta handik etortzeko orduen xehetasunak.

### Bosgarrena: Ostatua, instalazioak eta menuak.

Egonaldiak Olakueta aterpetxean egingo dira. (4-5-6 Elizondo Plazan, 48240 PK, Berriz (Bizkaia) Tfno. 902 540 999.

Aterpetxe horretan ingeleseko hizkuntzan murgiltzeko egonaldiak baino ez dira egingo, goian adierazitako txandek hartuko dituzten egunetan. Asteburuetan, bere ohiko jarduerak egin ditzake aterpetxeak.

Aterpetxean, ikasleen logela bakoitzean 10/16 neska edo 10/16 mutil egongo dira.

Irakasle-laguntzaileak logela bikoitzetan egongo dira. Arrazoi pertsonalen bat dela-eta hala gomendatzen bada, banakako logelak hartzen saiatuko da.

Instalazioetan bost ikasgela izango dira, eta ikasgelok edukiera eta altzari nahikoa izango dute taldeek eskola-jarduerak egin ditzaten. Halaber, erabilera anitzeko gela bat ere izango da, eta nahikoa altzari eta edukiera egokia izango ditu jarduera osagarriak eta guztientzakoak egiteko. Era berean, berdeguneak eta kirolguneak ere erabili ahalko dira.

Ikasleek erabiltzeko ikasgeletan, gainera, honako hauek ere izango dira: Interneterako sarbidea, ordenagailua eta inprimagailua, bozgorailuak eta proiektorea.

Irakasleen gelan, bestalde, multimedia-sarbidea, bi ordenagailu, bi inprimagailu eta bozgorailuak izango dira. Atsedean hartzeko gunea eta infusioak prestatzeko sukalde txikia ere erabilgarri izango dira. Bai eta material didaktikoa eta jardueren berri emateko taula ere.

Logelak, ikasgelak eta erabilitako instalazioak egunero garbituko dira, eta mantentze-lanak ere egunero egingo dira.



Astelehenetan, egonaldi bakoitzaren hasiera-egunean, instalazioak egoera ezin hobean eta guztiak erabiltzeko prest izango dira.

Elikadura:

Behar berezirik egon ezean, eguneroko menuak 2000 Kcal. inguru izango ditu, eta erakargarriak eta osasungarriak izango dira, aldi berean. Honako menu-eredu hauen antzekoak izango dira eta ordu hauetan emango dira:

## OTORDUEN ORDUTEGIA

<b>GOSARIA</b>	08:30
<b>MOKADUA</b>	11:30
<b>BAZKARIA</b>	13:30
<b>ASKARIA</b>	17:00
<b>AFARIA</b>	20:30

<i>OTORDUAK</i>	<i>MENUA</i>
<b>ASTELEHENA</b>	
Mokadua	Fruta-alea: sagarra
Bazkaria	Eltzekoa (garbantzua), legatza saltsan eta laranja
Askaria	Hestebetezko ogitartekoa: txorizoa
Afaria	Barazki-purea, oilo erreka patatekin eta izozkia
<b>ASTEARTEA</b>	
Gosaria	Esnea, kakaoa norbere gustura, zerealak, txigorkia, marmelada, gurina eta gozo-pieza bat
Mokadua	Fruta: mandarina
Bazkaria	Dilista erregosiak, solomoa plantxan entsaladarekin eta jogurta.
Askaria	Hestebetezko ogitartekoa: Yorkeko urdaiazpikoa
Afaria	1. platera                      2. platera                      azkenburukoa
<b>ASTEAZKENA</b>	
Gosaria	Esnea, kakaoa norbere gustura, zukua, zerealak, txigorkia, marmelada, gurina eta gozoki bat
Mokadua	Fruta: udarea
<b>PIKNIKA</b>	Arrautzopilezko ogitartekoa, solomoa, sagarra eta ura
Askaria	Hestebetezko ogitartekoa edo Nutelazkoa
Afaria	Hanburgesa patatekin eta entsaladarekin



<i>OTORDUAK</i>	<i>MENUA</i>
<i>OSTEGUNA</i>	
Gosaria	Esnea, kakaoa norbere gustura, zukua, zerealak, txigorkia, marmelada, gurina eta gailetak
Mokadua	Fruta (laranja) edo gozoki bat
Bazkaria	Fabada asturiarra, arraina saltsan, entsalada eta jogurta
Askaria	Hestebetezko ogitartekoa: salamia
Afaria	Agur-afari berezia: askotariko jaki hotzak eta beroak
<i>OSTIRALA</i>	
Gosaria	Esnea, kakaoa norbere gustura, zukua, zerealak, txigorkia, marmelada, gurina eta gozoki bat
Mokadua	Fruta: sagarra
Bazkaria edo	Arroza kubatar erara, haragi-bolak eta laranja
PIKNIKA	Arrautzopilezko ogitartekoa, txorizoa, udarea eta ura

Jantokiko zerbitzua emateko jende gehiago behar bada, ingeleseko hizkuntza-gaitasuna duten langileak hartuko dira.

### Seigarrena: Programa pedagogikoa.

Egonaldiaren helburu nagusia izango da programan parte hartuko duten ikasleei eskaintzea ingeleseko hizkuntzan guztiz murgiltzeko aukera. Horrek lagunduko die ingelesezko komunikaziorako trebetasunak garatzen eta, era berean, curriculumeko bestelako arloetako ezagutza garrantzitsua sakontzen.

Ingeleseko hizkuntzan murgiltzeko egonaldian arreta jarriko da parte-hartzaileen **hizkuntza-garapenak** duen garrantzian; baina, batik bat, garrantzi berezia emango zaie **hizkuntzazkoak ez diren helburuei**, hala nola, kulturartekotasun-helburuari edo xede artistikoari. Helburu horiek betetzeko, hainbat ikaskuntza-prozesu sartuko dira astean zehar.

Alde batetik, komunikatzeko gaitasunak eskuratuko dituzte; eta, bestetik, edukiak berenganatuko dituzte, bigarren hizkuntzaren (ingelese) bitartez. Hortaz, egonaldian zeharkako edukiak nabarmenduko dira, parte-hartzaileei garapen pertsonala eta soziala lortzen lagunduko dietenak; zehazki, honako hauek:

Sexu-berdintasunerako hezkuntza

Bakerako hezkuntza

Osasunerako hezkuntza

Bide-hezkuntza

Kontsumitzailearen hezkuntza

Jarduera zehatzek honako gaitasun hauek lantzen lagunduko dute:

1. **Ahozko komunikazioa sustatzen;** horrek lagunduko du identifikatzen alderdi fonetikoak, erritmoari lotuak, azentuazioa eta intonazioa, bai eta atzerriko hizkuntzako hizkuntza-egiturak eta lexikoa ere. Orobat, horiek guztiak komunikaziorako oinarritzko tresna gisa erabiltzen ikasiko dute ikasleek.



2. **Entzuten eta mezuak ulertzen** askotariko ahozko elkarrekintzetan, bakoitzak berak bizitakoari lotutako eginkizun zehatzak egiteko emandako informazioa erabiliz.
3. **Lehendik duten** ingeleseko **ezagutza erabiltzeko egoerak sustatzen**, ingelesezko entzumena eta ahozko adierazpena nabarmenduz.
4. Ingeleseko **oinarrizko esapideak** berenganatzen eta mekanikoki erabiltzen.
5. Eskueran dituzten bitarteko guztiak gero eta **autonomia** handiagoz erabiltzen ikasten, besteak beste, teknologia berriak, informazioa lortzeko eta ingelesez komunikatzeko.
6. **Jarrera ona** eta konfiantza izaten, norberak askotariko edukiak ikasteko duen ahalmenean.
7. Ikasleen interesen eremua **zabaltzen**, gizartea eta gizarte horretan izaten diren harremanak ulertzeko duten jakin-minak bultzatuta.
8. Ikasitako **hizkuntza erabiltzen**, berenganatzen duten heinean, azkenean guztiz barnera dezaten.
9. **Konpromiso-jarrerak izaten**, ingurukoekin elkarlanean aritzen, eta ingurumena gogoz zaintzen.
10. **Taldeko jardueren** plangintza egiteko eta jarduerok egiteko lankidetzan aritzen, gizarte-talde zabalagoaren zati direla sentitzen eta modu sortzailean elkarlanean aritzen, norberaren ekoizpenei buruzko balorazio kritikoak modu positiboa onartuz.
11. Bizitza eta **gizakion arteko bizikidetz**a zuzentzen dituzten oinarrizko balioek duten garrantzia balioesten, ingurukoekiko elkarrekintzan balio horiek identifikatzen eta balioen beharra dugula onartzen eta estimatzen.

Horrez guztiaz gain, honako berariazko helburu hauek betetzen ere lagunduko dute:

1. Ahozko eta idatzizko **esapideak antolatze**ko eta **sortze**ko gai izatea, norbere burua identifikatzeko eta objektuak, tokiak eta pertsonaiak deskribatzeko, lexiko egokia erabiliz. Horrek aukera emango die ikasleei benetako egoeretan parte hartzeko.
2. Era askotako **testuak idaztea**, askotariko xedeak izango dituztenak, alde zurretik gelan landutako gaiei buruzkoak, eredu laguntzarekin.
3. Askotariko testuak **ulertuz irakurtzea**; ikasleen bizipenei eta interesei lotutako testuak izango dira, eta, alde zurretik helburu bat jarrita, informazio orokorra eta espezifikoa ateratzen ikas dezaten lortu beharko da.
4. Ahozko eta idatzizko testuak sortzea, ingelesez; testu laburrak eta bakunak egingo dituzte, **benetako** edo asmatutako **komunikazio**-egoeretan.
5. Ikasleen **gaitasun metalinguistikoak** handitzea.
6. Hizkuntza hobeto **ulertzea** eta ekoizpen handiagoa izatea.
7. **Ingelesa ahoz erabiltzea** astean zehar, gainerako parte-hartzaileekin eta irakasleekin komunikatzeko.

Aintzat hartuta Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko curriculum, honako hauek nabarmenduko dira:

1. Atzerriko hizkuntza hainbat jatorritako eta kulturatako pertsonekin **komunikatzeko** eta elkar ulertzeko erabiltzea, eta askotariko edukiak ikasteko tresna gisa baliatzea.
2. **Ikasleen nortasuna** osorik garatzea, errespetuzko, askatasunezko, tolerantziatzeko eta elkartasunezko ohiturak sustatuz.
3. Parte-hartzaileak hezteko pertsonak errespetatu dituzten; horrek aukera emango die **aniztasuna** onartzeko, beraienak ez diren bestelako kulturak, ohiturak eta erakundeak ezagutzen dituztenean.
4. Ingelesa balioestea garapen pertsonalerako eta hezkuntza-garapenerako tresna gisa, eta **arte- eta kultura**-adierazpenerako bitarteko gisa.
5. Bestelako kulturekiko harremanaren alde egitea, bai eta **kulturartekotasunaren**, elkar-ulertzearen eta elkar errespetatzearen alde ere, ama hizkuntza ez diren bestelako hizkuntzak ezagutzeari esker. Horrek aukera emango du elkar errazago eta modu naturalagoan komunikatzeko.
6. Parte-hartzaileengan **interesa** sortzea ingeles-hiztunen kultura, ohitura eta erakundeak ezagutzeko.
7. Parte-hartzaileei ikusaraztea zein balio diren oinarritzeko, gizartean ahalik eta modu hobereanean sartzeko; besteak beste, **elkartasuna** eta **lankidetzeta**.
8. **Adiskidetasuna** eta bizikidetzeta sustatzea, elkar errespetatuz.
9. Zenbait jarrera bultzatzea, hala nola, **autonomia**, erantzukizuna, errespetua, antolakuntza eta taldeko lana.
10. Sozialazioa, elkarrekiko mendekotasuna eta banakako eta taldeko **erantzukizuna** indartzea parte-hartzaileengan.

Parte hartuko duten ikasleak gehienez ere 12 laguneko taldetan banatuko dira, jarduerak egiteko. Taldeak zoriz osatuko dira. Bestalde, bost ikasgela egokituko dira, askotariko lantegiak egiteko eta/edo talde bakoitzak bere eskola-jarduerak egiteko. Jarduera komunak egingo dira halako jarduerak egiteko egokituko diren geletan.

Eskola-jardueretako «gaien» arabera **zehaztuko da astegun bakoitzaren edukia**, eta programazioa asteko plangintzaren eta eguneroko ordutegiaren arabera egingo da. Zehazki, honako hauei jarraikiz:

ASTELEHENA	IRITSI	Harrera Instalazioak ikusi Banaketa	Workshop 1 1st session	Presentation	Free time	Gauoko jarduera
			Workshop 1 2nd session			
<b>TOPIC: BE A SCIENTIST</b>						
ASTEARTEA	Workshop 2 1st session	Workshop 2 2nd session	Workshop 3 1st session	Presentation	Free time	Gauoko jarduera
	<b>TOPIC: BE AN ARTIST</b>					



ASTEAZKENA	Workshop 3 2nd session	Workshop 4 1st session	Workshop 4 2nd session	Presentation	Free time	Gaueko jarduera
	<b>TOPIC: BE A COOK</b>					
OSTEGUNA	Workshop 4 3rd session	Workshop 5 1st session	Workshop 5 2nd session	Presentation	Free time	Gaueko jarduera
	<b>TOPIC: THE OLYMPIC GAMES</b>					
OSTIRALA	Workshop 5 3rd session	Evaluation	ETXERA			
	<b>TOPIC: BE A BLOGGER</b>					

- Ordutegi-eredua

ORDUA	JARDUERA	NON
<b>GOIZEAN</b>		
08.00- 08.30	Jaiki eta logelak txukundu	Logeletan
08.30 - 09.00	Gosaldu eta hortzak garbitu	Jantokian
09.00 - 11.00	Ingeleseko eskola / Topic	Aterpetxe barruan/gelan
11.00 . 11.30	Jolas-ordua	Kanpoan/jolastokian
11.30- 13.00	Ingeleseko eskola / Topic	Kanpoan/ibiltaria
13.00 - 14.00	Bazkaria	Jantokian
14.00 - 15.00	Hortzak garbitu eta denbora librea	Kanpoan/jolastokian
<b>ARRATSALDEAN</b>		
15.00 - 17.00	Ingeleseko eskola / Topic	Barruan/gelan
17.00 - 17.30	Break	Kanpoan
17.30 - 19.00	Aurkezpenak	Barruan/kanpoan
19.00 . 20.30	Dutxa, denbora librea eta mugikorra erabiltzeko tartea	Aterpetxean





GAUEAN		
20.30 - 21.00	Afaldu eta hortzak garbitu	Jantokian
21.00 - 22.00	Gaueko jarduera	Aterpetxean
22.00- 22.15	Bilera	Barruan
22.15 - 22.50	Logeletara joan eta irakurtzeko tarte	Barruan
23.00	Isiltasuna	Logeletan

### Zazpigarrena: Giza baliabideak (ingelesez).

Curriculum vitae laburraren bitartez identifikatuko da.

- ❖ 1 koordinatzailea:
- ❖ 3 irakasle
- ❖ 3 begirale

Beste langile batzuk:

Aterpetxeko bertakoak: 2 sukaldari, 2 garbitzaile, mantentze-lanetarako langile bat.

Izen-abizenen bitartez identifikatu.

### Zortzigarrena: Beste zerbitzu batzuk

- Asegurua
- Osasun-laguntza
- Ikaslearen gida
- Ingelesko hizkuntzan murgiltzeko bloga

Asegurua: Kells College S.L. enpresak aseguru-kontratu bat sinatuko du, egonaldietan parte hartuko duten ikasle, irakasle eta langileak behar bezala babestuta izan daitezen. Aseguru horren baldintzen berri emango da programaren webgunean.

Osasun-laguntza:

Proiektua osatzen duten guztiei eta, bereziki, haurrei, osasun-laguntza bermatzeko egoki izango diren tresnak eta protokoloak prestatuko jarriko dira.

Gure ustez, parte-hartzaileak programan **sartu aurretik**, erabakigarria izango da honako hauen arteko KOMUNIKAZIOA:

**Gurasoak → Parte hartuko duten ikastetxeetako tutoreak → Kells Collegeko zuzendaria → Kells Collegeko langileak → Aterpetxeko langileak.**

Hizketakide horietako bakoitzak betebeharra du ziurtatzeko protokoloen barruko neurri eta prozesu guztiak betetzen direla. Hona hemen protokoloak:

## Informazioa biltzeko protokoloa

Kontratua sinatzen denean **fitxa medikoak** emango dira, ikasleen gurasoek behar bezala bete ditzaten. Fitxa horien kopia bat eman beharko zaio zuzendariari, programan parte hartu baino lehen.

Fitxetan honako hauek jasoko dira:

Fitxetan azalduko dira seme-alaben berariazko ezaugarriak eta **hartu behar dituzten sendagaiak**. Halaber, adierazi beharko dira gaixotasunak, alergiak eta sendagai edo elikagaien bati intolerantzia diotela, seme-alabek halakorik baldin badute.

Ikasleren bat gaixo badago, alergiaren bat badu edo tratamenduan badago:

- ✓ **Medikuaren txostena** erantsi beharko da. Txosten horretan ziurtatu eta azaldu beharko dira ikasleak dituen gaixotasunak edo patologia, bai eta asaldurak tratatzeko beharrezko diren neurriak eta tratamenduak ere. Hartu behar duten sendagai bakoitzeko **sendagaia hartzeko** jarraibideak adieraziko dira, eta sendagaiak edo hura emateak zein funtzio duen azaltzeko fitxa txiki bat bete beharko dute gurasoek.
- ✓ Gurasoek berariaz **sinatuko dute** dokumentu bat, irakasleak **baimentzeko** beren seme-alabei sendagaiak eman diezazkieten.
- ✓ Haurraren historia duen osasun-zentroaren telefono-zenbakia ere adierazi beharko da.
- ✓ Programa hasi aurretik, ikasleek lehenago izan dituzten gaixotasun aipagarriei buruzko informazioa bilduko da.

Kells College enpresako zuzendariak aste bakoitzean joango diren parte-hartzaileek izan ditzaketen patologien edo gaixotasunen berri emango die Kells Collegeko eta aterpetxeko langileei, ikasleak iritsi baino lehen. Uneoro, zorrozki babestuko dira datu pertsonalak. Informatizatuko ez diren fitxak suntsitu egingo dira, edo haien titularrari emango zaizkio, egonaldia bukatzen denean.

## Erregistratzeko protokoloa

Parte hartuko duen talde bakoitza erregistratuko da aterpetxera iristen denean. Horretarako, Kells Collegeko langileek hiru mahai jarriko dituzte. Mahai batean mugikorrak jasoko dira, beste batean bankuko dirua eta, hirugarrenean, sendagaiak.

- ✓ Prozesu horretan, parte-hartzaileek eginkizun garrantzitsua izango dute. Izan ere, une horretan hasiko dira ingelesarekin harremanetan. Fitxetan jasotako informazioa eman beharko dute eta, aldez aurretik jakinda, ikasleek beraiek azaldu beharko dute, ingelesez eta tutoreen laguntzarekin, ea alergiarik edo gaixotasunik duten, ea sendagairik hartzen duten eta abar.
- ✓ Mediku-txartelak jasoko dira eta fitxa medikoekin batera gordeko dira, osasun-zentroren batera joan behar izanez gero beharrezko informazio guztia izan dadin.
- ✓ Baimena emateko gurasoen idazkia, medikuaren txostena eta sendagaiak emateko fitxa jasoko dira, eta banan-banan gordeko dira, material hori guztia erabilgarri izan dadin modu eraginkorrean.

## Jarduteko protokoloa

1. Parte hartuko duten ikastetxeetako **tutoreek** izango dute ardura ikasleei hartu behar dituzten eta gurasoen baimenarekin eta medikuaren txostenarekin ekarri dituzten **sendagaiak emateko**.
2. Ikasleen osasunari lotutako edozein **jazoera** gertatzen bada, irakasleei jakinaraziko zaie, eta ikasleak berehala eramango dira **osasun-zentrora**, osasun-langile gaituek ahalik eta azkarren eman diezaien arreta.
3. **Osasun-zentroa**: Berrizean badago eguneko osasun-zentroa (herri horretan bertan dago aterpetxea).
4. Haurra osasun-zentrora eraman behar bada, Kells Collegeko zuzendariak izango du haurra eramateko ardura, parte hartuko duen ikastetxeko tutoreak lagunduta. Kells Collegegaren **laguntza-autoa** baliatuko da.
5. **Jazoeraren partean** jasoko da egingo den jarduera oro, eta parte berehala jakinaraziko zaio Kells Collegeko eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko Zuzendaritzari.
6. **Botikin** osoa izango da, mota horretako egonaldietarako beharrezko sendagai guztiekin. Sendagile baten aholkuei jarraikiz beteko da botikina, eta bestelako beharrezko sendagaiak ere sartuko dira, familiek alde aurretik bidalitako fitxen arabera. Sendagai beraren mota bat baino gehiago izan nahi dugu, badaezpada, ikasleren batek sendagai jakin bati alergia badio ere.
7. **Prebenitu**: arreta-mota hoberenetakoa da prebenitzea. Gure ustez, edozein jazoera ez gertatzeko bermea da hobekuntza gisa proposatu dugun arriskuen ebaluazioa, bai eta jarduerak antolatzean jartzen dugun arreta osoa ere. Dena den, prest gaude jarduteko, hala behar bada.

## Ikaslearen gida:

Gida bat egingo da, eta Kells College enpresak euskaraz eta gaztelaniaz emango die Hizkuntzan Murgiltzeko programako egonaldian parte hartzeko toki bat lortu duten ikastetxe publikoetako ikasleen gurasoei.

Programari buruzko zalantzak Kells College enpresaren bulegoan argituko dira. Hona hemen helbidea eta telefono-zenbakia:

Plaza del Cuadro, 4 Bajo  
Tel.: 942 216815 Faxe: 942313165  
39003 SANTANDER

## Ingeleseko hizkuntzan murgiltzeko bloga

Kells Collegek bloga abiaraziko du, komunikazio eraginkorra eta naturala eskaintzeko. Gure proposamenaren abiapuntua da eskuragarri ditugun teknologia berrien erabilera optimizatzea, eta proiektuan zehar lantzea.

Hasteko, elementu bakoitza xehetasunez azaltzeko, komenigarri iruditu zaigu komunikazioa hiru ataletan bereiztea. Atal horiek bat datoz **hiru aldi** hauekin:

- ✓ Komunikazioa programa hasi aurretik.
- ✓ Komunikazioa programan zehar.
- ✓ Komunikazioa programa bukatu ondoren.

Era berean, aipatzekoa da nor izango diren komunikazio horretako **hizketakideak**, eta zein zeregin izango duen bakoitzak. Hona hemen:

- ✓ Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila.
- ✓ Kells College.
- ✓ Irakasle-laguntzaileak.
- ✓ Parte-hartzaileak.
- ✓ Parte-hartzaileen familiak.
- ✓ Eskola-elkartea.

**INGELESEKO HIZKUNTZAN MURGILTZEKO BLOGA** izango da proiektu hau egiteko eskainiko dugun tresna dinamizatzaile eta jatorrizkoa. [www.kellscollege.com](http://www.kellscollege.com)

Gure proiekturako tresna hori sortzea apustu bat izan da hezkuntzan (oraingo honetan, hezkuntza elebidunean) erabilgarri dauden teknologia berriak bateratzeko eta ustiatzeko. Helburu orokorretan ere jaso dugu hori. Gure ustez, gainera, oso tresna erabilgarria da, eta komunikazioa erraztuko eta programa hobeto egiten lagunduko du.

**Hona hemen blogaren zenbait abantaila eta egitura:**

1. Bloga **proiektuaren egunerokoa** egiteko balia daiteke: blogaren atal batean, egonaldian jazotakoa azalduko dugu, egunero. Guztiek izango dute aukera beren iritzia emateko; izan ere, sail bereziak izango dira parte-hartzaileentzat, tutoreentzat eta Kells Collegeko langileentzat. Horri esker, bai haurren familiek bai parte hartuko duten bestelako ikastetxeek ikusi ahalko dute nola egiten ari den programa.
2. **Parte hartuko duten ikastetxeetako proiektuaren arduradunek** informazio orokorra eskuratu ahalko dute, bai eta «ohiko galderen» erantzuna bilatu, materiala eskatu eta izen-emate fitxak eta ikasleen gida deskargatu ere. Horretarako, sartzeko gakoak izango dituzte. Horri esker, modu erraz eta eraginkorren komunikatuko dira enpresa eta ikastetxe parte-hartzaileko arduraduna, eta informazioa ere erraz eta modu eraginkorren emango die elkarri.
3. **Familiek** birtualki ikusi ahalko dituzte instalazioak, egiaztatu eskainiko diren menuak, ikusi jarduerari buruzko informazioa eta argazkiak eta abar.
4. **Parte hartuko duen ikastetxe bakoitzak atal berezia izango du**, edo esteka izango du bere blogera edo webgunera sartzeko. Zerbitzu horrek aukera emango du proiektu elebiduna aurrera eramateko egonaldia bukatu ondoren ere, eta proiektuaren abantailez baliatzen jarraitzeko (jarduerak, fitxak eta abar), ikasturtearen amaierara arte.
5. Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak denbora errealean eskuratu ahalko du informazioa, eta klik egitearekin bakarrik ikusi ahalko du proiektua nola egiten ari diren, blogaren leihotik.
6. **Esteka interesgarriak**; blogean, programaren edukiei buruzko esteka interesgarriak jarriko dira (ingurumena, zientziako saiakuntzak, geografia eta abar).

Hezkuntza Sailaren eta Kells Collegeren arteko komunikazioa



Komunikazio hori proiektuko zuzendari José González Merinok egingo du. Zehazki, bitarteko lana egingo du EUSKO JAURLARITZAKO HEZKUNTZA sailaren eta Kells College enpresaren artean, eta berak izango du ardura beharrezko informazio guztia emateko eta Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari helarazteko.

Komunikazioa hiru alditan egingo da:

- ✓ Programa egiten hasi aurreko hilabeteetan, ikastetxeen arteko koordinazioa antolatzeko.
- ✓ Programa egiten ari denean, parte-hartzaileen zerrendak emateko eta edozein aldaketa edo jazoeraren berri emateko.
- ✓ Programa bukatu eta gero, memoria eta proiektuaren ebaluazioa egiteko.

Kells College enpresaren eta parte hartuko duten ikastetxeen arteko komunikazioa

Gure ustez, oso garrantzitsua da komunikazio hori, bai eta lehen aipatu ditugunak ere. Hori dela-eta, zenbait jarraibide programatu ditugu, komunikazioa eraginkorra izan dadin eta programako baliabideak optimizatzeko balio dezan. Bloga erabiliko da informazioa helarazteko, bai eta mezu elektronikoak edo telefono-deiak ere, beharrezko den guztietan.

Parte-hartzaileen eta familien arteko komunikazioa

Badakigu haur asko lehendabiziko aldiz izango direla egoitzazko programa batean, eta bizileku duten etxea hainbat kilometrora izango dutela. Horregatik, jakitun gara zein beharrezkoa den hitz egin ahal izatea, bi aldeentzat.

Komunikazioa egunerokoa izatea nahi dugu eta, horretarako, honako bide hauek jarriko ditugu erabilgarri:

- ✓ Hiru telefono mugikorren zenbaki: erabilgarri izango dira familiek dei dezaten, ikaslearen gidan adierazitako ordu-tarteetan.
- ✓ Zuzendariarekin harremanetan jartzeko telefono mugikorreko zenbaki bat, 24 orduz erabilgarri.
- ✓ Aterpetxean telefono finko bat, hara egin nahi diren deiak egiteko.
- ✓ Telefono-kabina publiko bat, haurrek etxera dei dezaten.

Adierazi nahi dugu, eta familiei ere jakinaraziko diegu, ez dela beharrezkoa egunean bi aldiz deitzea. Izan ere, horrek hurrei arreta galaraz diezaieke, eta, ondorioz, hizkuntzan murgiltzeko programaren aprobetxamendua txikiagoa izango da. Hori dela-eta, gure ustez, bloga da tresna baliagarriena, familiek informazio osoa izan dezaten, deitu beharrik gabe.

Ordutegiak, telefono-zenbakiak eta gainerako informazioa jaso dira ikaslearen gidan. Gida hori Kells College enpresak ikastetxe parte-hartzaile bakoitzeko tutoreei emango die, eta memoria honetan ere erantsiko da.

Proiektuaren eta eskola-elkartearen arteko komunikazioa

Nahi dugu proiektu honek oihartzuna izan dezala hedabideetan, eta esperientzia on hau bestelako ikastetxe publikoetara edo itunpeko ikastetxeetara irits dadila. Horregatik, gure ustez, bloga erabiltzeak lagunduko du proiektua gehiago hedatzen, eta nahi duten ikastetxe guztiek programa ikusteko aukera izango dute.

## Bederatzigarrena: Irakasle-laguntzaileak:

Kells Collage enpresak konpromisoa hartu du gure proiektuan laguntzaile izango diren irakasleen parte-hartzea hobetzeko eta optimizatzeko. Egonaldiak prestakuntza hartzeko balioko die eta, horregatik, hizkuntza-esperientzia eskainiko zaie, tresna baliagarrien bitartez, beren ezagutza zabaltzeko.

*EGONALDIA HASI AURRETIK:* irakasleen eta enpresaren arteko komunikaziorako gunea sortuko da; enpresak aholkuak, orientazioa eta laguntza emango die irakasleei, ikasle-taldea proiektura modu hezitzailean sartzeko eta astean egonaldia egiteko behar duten guztirako.

*EGONALDIAN ZEHAR:* prestakuntza-ikastaroa irakasle-laguntzaileentzat: Kells College enpresak prestakuntza emango die irakasleei, egonaldian zehar libre duten denboran. Irakasleentzako etengabeko prestakuntzako eta birziklatzeko proiektua da. Berariazko gida bat emango zaie, eta horren bitartez landu ahalko dituzte prestakuntzako askotariko gaiak:

- ✓ Ingelesaren zeharkakotasuna curriculumean.
- ✓ Ikastetxe eleaniztunak.
- ✓ Teknologia berriak eta ingelesa.
- ✓ Baliabide didaktikoak eta pedagogikoak.
- ✓ Fonetika, berariazko hiztegia.
- ✓ Denbora librerako ingeleseko baliabideak.

Egonaldian zehar, irakasle-laguntzaileek aukera izango dute elkarrizketa-lantegian parte hartzeko. Ama-hizkuntza ingelesa duten Kells Collegeko langileek emango dute lantegia. Lantegi horretan askotariko gaiak landuko dira, besteak beste:

- ✓ Kultura irlandarra.
- ✓ Fonetika, berariazko hiztegia.
- ✓ Baliabide didaktikoak eta pedagogikoak.

*EGONALDIA BUKATU ONDOREN:* irakasleei laguntza emango zaie, proiektua egiteko eta betetzeko behar duten guztian. Orientazioa, aholkularitza, baliabideak eta abar.

Kells College enpresak, atzerrian programak egiteko sailaren bitartez, harremanak hasiko ditu ingeleseko hizkuntzan murgiltzeko programan parte hartuko duten ikastetxeen eta Irlandako edo Ingalaterrako ikastetxeen artean. Kells Collegek aukeratuko ditu hainbat hezkuntza-proiektutan (ikasturteak, udako programak) eta ingelesa ikasteko proiektuetan berarekin modu jarraituan lan egiten duten ikastetxeak.

- ✓ Harreman horien helburua izango da honako hauek sustatzea eta ahalbidetzea:
- ✓ Ikastetxeen arteko lankidetzak.
- ✓ Ikasle-trukeak.
- ✓ Proiektu komunak egitea eta aholkuak ematea.
- ✓ Curriculum-materiala elkarbanatzea.



Kells Collegek gonbit egiten die irakasleei egunean egingo diren jarduera, eskola edo irteera guztietan parte hartzeko, eta irakasleak libreki aukeratu ahalko du haietan parte hartu nahi duen ala ez. Azkenik, irakasle-laguntzaileek izango dute ardura ikasleak ohera eramateko eta zaintzeko, bai eta goizetan haiek esnatzeko eta logelak ikuskatzeko ere. Kells Collegeko langileak prest izango dira bi eginkizun horietan laguntzeko, irakasleek laguntzarik behar izanez gero.

## Hamargarrena: Memoria

2010eko ekainaren 15a baino lehen, Kells Collegek egonaldiari eta egindako jarduerari buruzko Memoria egingo du. Memorian honako hauek jasoko dira, labur-labur: egonaldiak nola egin diren, jazoera aipagarrienak, ebaluazio-tresnen edukiaren laburpen kritikoa eta egoki iritziko dituzten hobetzeko proposamenak.

Esparru-akordio honetako ebaluazio-tresna hauek onartu dira:

- Irakasleentzako galdera-sorta
- Langileentzako autoebaluazio-fitxa
- Irakasle-laguntzaileentzako ebaluazioa (euskaraz eta gaztelaniaz)
- Ikasleen ebaluazioa, gelan

## Hamaikagarrena: Esparru-akordioa gauzatzeko baldintza orokorrak

- Arrisku eta zoriak: esparru-akordioa eta hortik eratorriko diren kontratuak egingo dira sortutako arrisku eta zoriak kontratistaren erantzukizun direla (Sektore Publikoko Kontratuei buruzko Legeko ô SPKLô 199. artikulua).
- Kontratua behar bezala egiteko eta betetzeko beharrezkoak diren zerbitzu profesionalak eman beharko ditu kontratistak; besteak beste, argibideak emateko bileretara joan beharko du eta jendaurreko informazioa eman beharko du. Horrek ez du batere kosturik gehituko.
- Enpresa kontratistak lortu beharko ditu prestazioa emateko behar diren baimen eta lizentzia guztiak, publikoak zein pribatuak.
- Enpresa kontratista behartuta dago lanaren, gizarte segurantzaren eta laneko segurtasun eta osasunaren arloetan indarrean diren xedapenak betetzera. Halaber, bete beharko ditu indarrean den araudiak laneko arriskuak prebenitzeko jarritako betebeharrak ere.
- Enpresa kontratistaren eta azpi-kontratisten kargu honako betebeharrak bere gain hartzen ditu esleipendunak:
  - a) Prebentziorako planari jarraituz, zuzendaritza funtzioak betetzen dituzten eta euren aktibitate eta erabakietan lan-arriskuen prebentzioa aplikatzeko beharrezko prestakuntza jaso duten pertsonak edukitzea.
  - b) Prebentziorako antolaketaren bidez, egikaritzeko orduan lan osasunerako eta segurtasunerako arrisku berezia eragin dezakeen prestazioaren aldizkako ikuskatzeen prozedura edukitzea, Prebentziorako Planaren berariazko egiaztapen prozeduran zehazten diren arauak jarraituz. Aipatu prozeduran, Segurtasun eta Osasun Planaren/Arriskuen Ebaluazioan jasotzen diren babes kolektiborako neurrien aldizkako egiaztapena zein EPIen erabilera eraginkorra gehitu beharko dira.



- c) Kontratua egikaritzeko prozesuan langile etorkinak baldin badaude, prebentzio-sistema egoki bat ziurtatzeko komunikazio eraginkorra ahalbidetuko duten prozedurak ezartzea.

## DATU PERTSONALEN BABESPEKOTASUNA ETA TRATAMENDUA

- **Babespekotasuna.-** Esparru-akordio hau eta hortik sortuko diren kontratuak egiteko enpresa kontratistak eskuratuko duen informazio guztia babespekoa izango da. Kontratistak eta, esparru-akordioa eta erator daitezkeen kontratuak egitean, hark izendatutako pertsonak ezingo dute beraien erabilerarako baliatu kontratatutako lanetako daturik edo informaziorik, ez eta akordioa edo kontratuak gauzatzeko erabiliko duten daturik edo informaziorik ere, eta ezingo dizkiete eman beste pertsona batzuei. Administrazioaren idatzizko baimena beharko dute datuak beraien erabilerarako erabiltzeko edo beste pertsona batzuei emateko. Beraz, eskuragarri dituzten bitarteko guztiak erabili beharko dituzte informazioa nahiz egindako lanetik lortutako emaitzak babespean eta isilpean mantentzeko (SPKLko 124.2 artikulua). Nolanahi ere, datu pertsonalak erabiltzea eskatuko ez duten lanak egiten direnean, eginkizun horiek egingo dituen enpresak eta enpresako langileek debekatuta izango dute datu pertsonalak eskuratzea. Orobat, zerbitzua ematean eskuratu ahal izan dituzten datuak isilpean gordetzeko betebeharra dute (1720/2007 Errege Dekretuak, abenduaren 21ekoak, Datu Pertsonalak Babesteko Legeari buruzkoak, bere 83.2 artikuluan xedatua).
- **Datu pertsonalen tratamendua.-** Datu pertsonalen tratamenduak izaera automatizatua duten edo ez duten operazio eta prozedura teknikoak hartzen ditu bere baitan, bilketa, grabaketa, kontserbazioa, elaborazioa, moldaketa, blokeoa eta baliogabetzea permititzen dutenak. Halaber, identifikatutako edo identifika daitezkeen pertsona fisikoei dagokien edozein informaziori eragiten dioten komunikazio, kontsulta, interkonexio eta transferentzietatik sor daitezkeen datuen konexioak ere barnean izango ditu.

Kontratuak eskatzen badu datu pertsonalak erabiltzea edo enpresa kontratistak edo azpi-kontratistak datu pertsonalak erabil ditzala, SPKLak bere hogeita hamaikagarren xedapen gehigarrian xedatutakoaren arabera jokatuko da, bai eta honako arau hauen arabera ere:

1. Tratamenduaren arduradunaren argibideen arabera soilik erabiliko ditu datuok kontratistak.
2. Tratamendurako helburua diren datu pertsonalak soilik kontratuaren helburua betetzeko erabiliko dira, eta ezingo dira adierazitako helburua ez den beste baterako erabili.
3. Kontratu honen ondorioz erabilitako datu pertsonaletako bat bera ere ez zaio beste pertsona bati emango. Hori horrela izanik, datu horiekin sortutako fitxategiak edo datuak beste pertsona bati ez erakusteko, emateko, uzteko edo komunikatzeko konpromisoa hartuko du kontratistak; ahoz zein idatziz, baliabide elektronikoen, paperaren edo sarbide informatikoaren bidez, ezta ikusteko ere.
4. Kontratuaren xede den prestazioan lan egiten duten kontratistak zein langileak hori betetzera derrigortuta daude, 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak, bere 10. artikuluan jasotzen





duen sekreturako obligazioaren arabera. Bai bete delako bai suntsitu delako, kontratua bukatu ondoren ere mantenduko da obligazio hau.

5. Kontratu honen xede diren lanak gauzatzeko tratatutako datu pertsonalen segurtasuna bermatzeko beharrezkoak diren neurri tekniko, administrazioko eta antolaketakoak hartzeko konpromisoa hartzen du kontratistak, 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak, xedatzen duenaren arabera.

a) Zentzu honetan, lanak hasi aurretik, enpresak datu pertsonaletara sarbidea izango duten langile guztien izen-abizenen, funtzioen eta lana egingo duten lekuaren berri eman beharko dio organo-kontratataileari. Kontratua betetzen den bitartean langile berri bat sartu edo bati baja eman behar baldin bazaio, hori gertatu eta gehienez astebeteko epean enpresa esleipendunak zerrenda berri bat eman beharko du. Enpresa esleipendunak zein aipatutako zerrendako langile guztiek datu pertsonalen inguruko sekretu profesionala gordetzeko konpromisoa formalki eta idatziz adierazi beharko dute.

b) Esleipendunak segurtasun-neurriak jarri beharko ditu, nahitaez, tratamendu-zentroetan, lokaletan, ekipoetan, sistemetan eta programetan.

c) Behin kontratuaren xede den prestazioa bukatuta, esleipendunak datu pertsonalak jasotzen dituzten euskarri guztiak itzuli edo fitxategi guztiak deuseztatu edo ezabatu beharko ditu. Deuseztatzearen ondorioz, datu horiek berreskuratzea ezinezkoa izan behar da. Xedapen horiek ageri diren lanen esleipendunaren ordezkariak eta zuzendariak akta bat sinatu beharko dute, fitxategi horiek itzuli direla edo deuseztatu direla ziurtatuz.

6. Kontratua indarrean dagoen bitartean, ezarritako segurtasun-neurriak egiaztatzeko eta beharrezkoa izanez gero, beharrezko neurri zuzentzaileak hartzeko eskubidea izango du Administrazioak.

- Enpresa homologatuek ezingo dituzte eskaini merkatuan prezio, baldintza edo prestazio hobek, lizitazio-prozedura honi jarraikiz Autonomia Erkidegoko Administrazioari eskainitakoak baino. Obligazio horiek ez betetzea hutsegite handitzat joko da, eta esparru-akordioa deuseztatzeko arrazoi izango da.

- Esparru-akordioa indarrean den bitartean, kontratistek Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailari jakinarazi beharko diote gertatuko den edo kontratatzeko edo ordezkatzeko gaitasunean eragingo duen aldaketa oro.

- Zigorrek. SPKLak bere 196. artikuluan xedatutakoaren arabera, kontratazio-organoak zigorra ezar dakioko enpresa kontratistari, honako ez-betetze hauetakoren bat egiten badu, eta adierazitako zenbatekoan:

a) Prestazio akastuna eman; edo ez bete edo akatsez josita bete bitarteko pertsonalak eta materialak, hizkuntza-baldintzak edo egikaritzeko bestelako baldintza bereziak atxikitze konpromisoa (*SPKLko 196.1. artikulua*).

b) Eskaintzak baloratzeko irizpide gisa aintzat hartutako alderdietan eragina duen ez-betetzea edo betetze akastuna (*SPKLko 134.6 artikulua*).

Zigorren zenbatekoa honakoa izango da:

a) eta b) letretan adierazitako arrazoiengatik: kontratuaren prezioaren %1; hala ere, baldin kontratazio-organoak jotzen eta arrazoitzen badu ez-betetzea larria edo oso

larria dela, gehienez ere, prezioaren %5eko zigorra izango da a) letrak azaldutako kasurako, eta, gehienez ere, %10ekoa, b) kasurako. Ez-betetzea behin eta berriz egin den ala ez kontuan izango da larritasuna baloratzeko.

Bitartekoak, hizkuntza-baldintzak edo bestelako esleitzeko baldintza bereziak atxikitzeko konpromisoa ez betetzeagatiko edo era akastunean betetzeagatiko zigorrak jarriko dira kontratazio-organoak ez-betetzea egiaztatzen duen unean.

Eskaintzak baloratzeko irizpide gisa kontuan izan diren alderdietan eragina duten ez-betetzeengatik eta betetze akastunengatik zigorrak jarriko dira, jasotze-unean, kontratazio-organoak egiaztatzen duenean kontratistak kontratua edo eskaintzan bere gain hartutako konpromisoetakoren bat egikaritu duela, kontratistari egotz dakizkiokeen kausak direla-eta, betiere konpromiso horiek garrantzitsuak izan badira esleipenerako.

Bete ez diren konpromisoak garrantzitsuak direla joko da baldin, kontratistari lortutako puntuazioaren %50 kentzen bazaio bete ez duen irizpidean, ikusten bada bere eskaintza ez zela izan balorazio hoberena lortu zuena.

Zigor horiek eraginkor egingo dira kontratistari ordaindu behar zaizkion ordainketa oso edo partzialen zenbatekotik kasuan kasuko diru-kopuru kenduta, edo bermearen gainean, SPKLko 196.8 artikuluan xedatutakoaren arabera.

Betetze akastunengatiko zigorrak ezarriko dira, alde batera utzita legearen arabera enpresa kontratistak akats horiek konpontzeko duen betebeharra.

Zigorra ezartzeak ez du baztertzen kalteengatiko ordaina ematea (SPKLko 198. artikulua).

- **Kontratua aldatu eta etetea.**

Kontratazio-organoak kontratua alda dezake, interes publikoko arrazoiak direla-eta, eta SPKLko 202. artikuluan agindutakoa betetz.

Kontratua eteten bada, SPKLko 203. artikuluan xedatutakoari jarraikiko zaio. Kontratua aldi baterako edo behin betiko eteten bada, edo kontratuaren zati bat edo kontratua osorik eteten bada, eteteari buruzko akta egingo da.

- **- Kontratua iraungi eta amaitutzat jotzea.**

Bete edo amaitzen denean iraungiko da kontratua.

SPKLko 277.4 artikuluan xedatutakoaren arabera, zerbitzuen kontratuak iraungitzen direnean, inolaz ere ezingo dira jarri Administrazio kontratatzaileko langile gisa kontratuaren xede diren lanak egiten dituzten pertsonak.

SPKLko 284. artikuluekin bat, esparru-akordioa eta hortik eratorriko diren kontratuak amaitzeko arrazoi izango dira honako hauek, SPKLko 206. artikuluan adierazitakoez gain:

- a) Administrazioak, berari egotz dakiokeen arrazoiren batengatik, kontratuan adierazitako egunetik aurrera, kontratuaren hasiera sei hilabetetik gora bertan behera uztea, agirian beste epe laburragoren bat aipatu ezik.
- b) Administrazioaren erabakiz urtebete baino gehiagoz kontratuan atzera egitea edo kontratua etetea, agirian beste epe laburragoren bat aipatu ezik.
- c) Kontratua aldatzea, nahiz eta aldaketak elkarren jarraian egin, baldin eta, banan-banan edo denak batera hartuta, kontratuaren prezioaren aldaketak, goitik zein behetik, kontratuaren hasierako prezioaren 100eko 20 baino gehiagokoak badira,



Balio Erantsiaren gaineko Zerga kanpoan dela, edo hasierako prestazioari funtsezko aldaketaren bat sortzen badiote.

Hamabigarrena: Administrazioaren eskumenak, jurisdikzioa eta errekurtsioak.

- **- Administrazioaren eskumenak**

Kontratazio-organoak du eskumena esparru-akordioa eta hortik eratorriko diren kontratuak interpretatzeko, eta horiek betetzean sortuko diren zalantzak ebazteko. Era berean, esparru-akordioa eta hortik eratorriko diren kontratuak alda ditzake, eta horiek amaitzea erabaki dezake, muga batzuen barruan eta SPKLAN eta lege horretako xedapenetan ezarritako betekizunei eta ondorioei lotuta.

Berehala betearaztekoak izango dira kontratazio-organoak emango dituen erabakiak bere interpretazio-eskumenak erabiltzean, alde zuzenetik organo eskudunek txosten juridikoa eginda.

- **- Jurisdikzio eskuduna**

Administrazio-kontratuak interpretatu, aldatu eta amaitzeari buruzko eta haien ondorioen gainean sor daitezkeen eztabaidak kontratazio-organo eskudunak ebatziko ditu. Kontratazio-organo horren erabakiek bukatuko dute administrazio-bidea, eta erabaki horien aurka berraztertze errekurtsioa jar daiteke, nahi izanez gero. Horretarako, bi hilabeteko epea izango da, jakinarazten edo argitaratzen den egunaren biharamunetik hasita.

- **- Araubide juridikoa**

Esparru-akordioak eta hortik eratorriko diren kontratuek administrazio-izaera izango dute, eta jarraian aipatuko diren arauak eta dokumentuek zuzenduko dituzte:

a) Administrazio Klausula Berezien Plegu honetan jasotako klausulek.

b) Baldintza Teknikoen Pleguan jasotako klausulek.

c) 30/2007 Legeak, urriaren 30ekoak, Sektore Publikoko Kontratuei buruzkoak (SPKL).

d) 1098/2001 Errege Dekretuak, urriaren 12koak, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen Araudi Orokorra (RGLCAP) onartzen duenak, SPKLAN ezarritakoaren aurka egiten ez duen bitartean.

e) 1972ko martxoaren 8ko Aginduak, azterketa eta zerbitzu teknikoak kontratatze Administrazio Klausula Orokorren Plegua onartzen duenak, aipatutako Legean eta Araudian xedaturikoaren aurka ez dagoenerako.

f) Kontratu-izaera duten dokumentuek.

Eta, honako beste hauek zuzenduko dituzte, arautzeak eragiten dienean:

g) 15/1999 Lege Organikoak, abenduaren 13koak, Datu Pertsonalak Babesteari buruzkoak.

h) 59/2003 Legeak, abenduaren 19koak, sinadura elektronikoarenak.

i) 34/2002 Legeak, uztailaren 11koak, Informazioaren gizartearen zerbitzuenak eta merkataritza elektronikoarenak.

j) Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2004ko abuztuaren 16ko Aginduak, herri administrazioen kontratuen legedian jasotako zenbait prozeduren eta jarduketaren izapidetze telematikoari buruzkoak.

k) Estatuko nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko kontratazioa arautzen duen beste edozein xedapenak, erkidego horren esparruan aplikatzekoa bada.

Halakorik egon ezean, Herri Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legea, azaroaren 26koa aplikatuko da, bai eta



administrazio-zuzenbideko gainerako arauak ere; eta, halakorik ez badago, zuzenbide pribatuko arauak.

Kontratuaren zehaztasunak, kontratuari erantsitako agiriak edo administrazioak onartutako jarraibide, klausula-plegu edo era guztietako arauak ezagutu gabe ere, hitzartutakoa betetzeko erabili beharrekoak gerta badaitezke, kontratistak horiek guztiak betetzeko obligazioa izaten jarraituko du, ez da horregatik obligazio horretatik aske gelditzen.

<p>Kells College S.L.</p>          <p>Juan Manuel Elizalde Sánchez ZUZENDARI NAGUSIA</p>	<p><b>Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saila</b></p>          <p><b>María Soledad Esteban Galarza ADMINISTRATIO ETA ZERBITZUEN SAILBURUORDEA</b></p>
--	---

**EGONALDIEN EGUTEGIA**

Zk	-(E)TIK	ó(E)RA	Zk	-(E)TIK	ó(E)RA	Zk	-(E)TIK	ó(E)RA
1	2009/11/23	2009/11/27	7	2010/1/25	2010/1/29	13	2010/3/8	2010/3/12
2	2009/11/30	2009/12/4	8	2010/2/1	2010/2/5	14	2010/3/15	2010/3/19
3	2009/12/7	2009/12/11	9	2010/2/8	2010/2/12	15	2010/03/22	2010/0.3/26
4	2009/12/14	2009/12/18	10	2010/2/15	2010/2/19	16	2010/4/12	2010/4/16
5	2010/1/11	2010/1/15	11	2010/2/22	2010/2/26	17	2010/4/19	2010/4/23
6	2010/1/18	2010/1/22	12	2010/3/1	2010/3/5	18	2010/4/26	2010/4/30



## I. ERANSKINA

í í í í í í í ..-n, 2009ko azaroaren 20an

### BILDU DIRA:

í í í .í í í í í í í í í í í .., í í í í í í í í í í í í í í í í ..í í í  
LHIko zuzendaria, ikastetxe horren ordezkari, eta

**Juan Manuel Elizalde Sánchez, Kells Collage S.L. enpresaren izenean eta horren ordezkari, enpresa horretako administratzaile bakar eta zuzendari nagusi den aldetik (hala dela egiaztatzen du bere alde Burgosko notario Jesús María Ferreiro Cortines jaunaren aurrean, 665 protokolo-zenbakiarekin, 2006ko otsailaren 27an egindako eskriturak)**

### ADIERAZI DUTE

I.- 2009ko ekainaren 26ko Aginduak, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailarenak, adierazi zuela homologagarritzat jotzen dela eskola-ingurunetik kanpo egindako atzerriko hizkuntzak ikasteko jardueren gaineko alderdi guztien antolaketa. Homologatzeko Lehiaketa izapidetu da, eta KELLS College S.L. izan da esleipendun. Enpresa horrek emango ditu beharrezko elementu pertsonal eta material guztiak, bai aipatutako ekintza egiteko, bai atzerriko hizkuntzak ikasteko egonaldietan egingo diren jardueren osagarriak eta antzeko zerbitzuak emateko. Egonaldiak eskola-ingurunetik kanpo egingo dira, eta astebeteko iraupena izango dute (astelehenetik ostiralera, bost egun eta lau gau).

II.- Aipatutako hilaren 6an onartu dela Esparru Akordioa, bere babespean EAEko ikastetxe publikoek egingo dituzten kontratuak arautzen dituena. Esparru-akordio hori kontratu honen zati da.

III.- Ikastetxe honek bere garaian aurkeztu zuen eskaera onartu dela. Hori dela-eta, aipatutako Aginduko 4. artikuluan xedatutakoarekin bat, kontratu hau egin da, honako hauen arabera:

### KLAUSULAK:

Lehenengoa: í LHI ikastetxeak parte hartuko du ingeleseko murgiltze-egonaldian, Berrizeko Olakueta aterpetxean, 2010eko í í í (r)en í í í .(e)tik í í í í ..(e)rako astean.

Bigarrena: Egonaldian parte hartuko dute aipatutako ikastetxeko Lehen Hezkuntzako 6. mailako ..... ikaslek eta, gehienez ere, bi irakaslek.

Hirugarrena: Kontratu honen kostua í í í í ..p da. Zenbateko hori bi epetan ordainduko da, eta bi ordainketen faktura aurkeztu beharko da. Lehendabiziko ordainketan kontratatutako guztiaren %40 ordainduko da, eta, bigarren ordainketan, gainerako zenbatekoa. Bigarren ordainketa kontratatutako egonaldia bukatu ondoren egingo da.

Laugarrena: Bi aldeek konpromisoa hartzen dute beharrezko ekintzak egiteko, kontratuaren xede den ingeleseko murgiltze-egonaldia egin dadin.

Hortaz, kontratu honen bi ale sinatu dituzte, adierazitako tokian eta egunean.

**Juan Manuel Elizalde Sánchez**

í í í í í í í í í í í í í

**Kells Collage S.L. enpresako zuzendari í í í í í í í -í .LHIko zuzendaria nagusia**





## IRAKASLE-LAGUNTZAILEENTZAKO EBALUAZIOA

	Bikaina	Ona	Hala-moduzkoa	Eskasa
<b>INSTALAZIOAK</b>				
Ikasgelak				
Logelak				
Gela komunak				
Jantokia				
Komunak				
Kanpo-espazioa				
Garbiketa				
Erosotasuna				
<b>JANARIA</b>				
Barietatea				
Kalitatea				
Irizpide dietetikoak				
Garbiketa				
Dieta bereziak				
<b>HEZKUNTZA</b>				
Irakaskuntza				
Hiztegia				
Ingelesez hitz egitea				
Gramatika				
Ingelesaren ulerkuntza				
Fitxak				
Material pedagogikoa				
Murgiltzea				
Ikasleei eman zaien arreta				
<b>JARDUERAK</b>				
Helburuak				
Materiala				
Maila				
Parte-hartzea				
Ordutegia				
<b>ENPRESA</b>				
Komunikazioa				
Arreta				
Irakasle kop. / Begirale kop.				
Irakasleen/begiraleen kalitatea				
Koordinazioa				
<b>ORDUTEGIA</b>				
<b>GUZTIZKO BALORAZIOA</b>				